

**ZUMAIA LANTZEN SA.REN
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

59ZK-KO AKTA

ZUMAIA LANTZEN SA.ren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn bildu da, bi milako apirilaren 17an.

BERTARATUAK:

Lehendakaria:Rikardo PEÑA KINTELA

Batzarkideak: Felipe GUTIERREZ SERVAN
Arantxa GAJATE TELLERIA
Asier ESNAL ALBIZU

Idazkaria: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

Bilerara etorri dira, Gonzalo Torre Oleaga, hitza bai, baina botorik ez duen zinegotzia Luis Javier Alvarez Yeregui zinegotziaren ordezkoa, Luziano Paguegi udal arkitektoa eta Tomas Eizmendi eta Jose Ramon Estomba ESARBE SA.ko ordezkariak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO KONTSEILUKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA (00/02/07ko 58zk-ko akta).

Akta irakurri eta horri buruzko aipamenak egin ondoren, aho batez onartu zen, zuzenketarik egin gabe.

2.- 2000ko JARDUERA PLANAREN EGOERA.

2.1.- Obrak.

Geldirik 3.Sektorean eta 21.HGAN, A-5eko eraikina bukatu eta A-6ko sotoak egin arte eta era berean, arazketarako Kolektore Nagusia, 21.HGAN ertzekeo ibiltokia urbanizatzeko.

32. HGAn kontratatutako hirigintza lanak bukatuta daude eta lur-jausien aurka atzeko bidea babesteko sareak eta hesiak jartzea falta da.

Gasa hartu eta banatzeko enpresek egindako eskaeren aurrean, egokitasuna eta presagatik lan hauek UBIRIA Eraikuntzak enpresari adjudikatu zitzaizkion 16.554.125 pezetan balioagatik, aurkeztutako hiru eskaintzetatik onuragarriena zelako (UBIRI ERAIKUNTZAK eta KOISER 17.555.000 pezetetan eta GARA 21.425.600 pezetetan).

Natur-Gasen instalazioak “obra-laguntza” behar du eta, gutxi gorabehera, 1.500.000 pezeta kostatuko litekeela pentsatzen da.

2.2.- Proiektu eta promozioak.

2.2.1.- Luziano Paguegik Oalora inguruko Plan Partzialaren Proiektuaren aurrerapen bat aurkeztu du eta aztertu eta zenbait aipamen egin ondoren, ontzat eman da.

2.2.2.- Aurreko Kontseiluetako planteamenduekin jarraituz eta horiei erantzuna emanaz, 3.Sektorearen erditik Ipar-Hegoa Parke linealaren Hirigintza Proiektuaren aurrerapena aurkeztu zuen eta hau ere onartu egin zen, azpimarratuz, eraikinen arteko eremuetan landatu behar diren zuhaitzak tamaina txikikoak izan beharko dutela, lehenengo solairuko etxebizitzetara eragozpenik ez sortzeko.

Baldintza hauetan Proiektuarekin aurrera jarraituko da, Mendebaldean aparkaleku publikoa egin gabe utziz, auzokideen batzordearen iritzia zehaztu edo erabaki arte.

2.3.- Zenbait gairen berri emanaz.

Kapital-zabalkuntza egina dago eta Notario aurrean eskriturak eginda.

SPRILUR SA.ri berrerosi zaio 32.HGAko A-SEI-BAT lurzatia industriari txikien beharretarako, Zumaia Lantzen SA berak egindako sustapenaren bidez.

Era berean, erosi dira 32.HGAko A-7 lurzatian KORTA SA.ren (%2,27) eta Lagun Artearen (%1,58) partaidetzak, Banco Santanderri erositako prezio berdintsuetan.

Erabakitzeke dauden Antonio Mateos eta Armando Rocaren errekurtsioak alde batera utzita, eta agian eragina izan dezaketenak, A-7 lurzati honetan Zumaia Lantzen SA da %90,34aren titularra (Gainerakoa %6,02 Provasarena eta %3,64 beste jabe batzuenak).

3.- STR BERRIA eta IBERDROLAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK.

Akordioaren bidez sinatu dira, STR berriaren kokapen eremuan Victoriano Antia eta beste batzuri erositakoaren eskritura publikoak, desjabetze espedientea amaitzera iritsi gabe.

Lurrak eskuratu eta STR berriko linea elektrikoaren hartunea eta irteerari dagokiona konponduta, Iberdrolarekin trukeko eskritura publikoa eratu nahi da 98/07/28an izenpetutako kontratu pribatuaren arabera.

4.- BESTE ZENBAIT. ESKARI ETA GALDERAK.

4.1.- Administrazio eta Kudeaketa kontratua handitzea Esarbe SA.rekin:

2000. URTERAKO JARDUERA PLANA aztertu eta onartzerakoan (00/01/10 eta 00/02/07ko Kontseiluak), Zumaia Lantzen SAK ESARBE SA.rekin duen Administrazio eta Kudeaketa kontratuaren esparrua handitzea ere erabaki zen, **2000.urtearen urtarrileko Udal Ondarerako Lurzorua erresebatzeko Proiektuak (ekainaren 29ko 20/1998 Legea)** mugatutako eremura zabalduz, akordio hau bileretako aktetan jaso ez bazen ere, ahaztu egin zelako.

Lurzoru erresebarean zabaltasuna, kudeaketen zailtasuna eta bere hirigintza garapena epe luzera burutuko dela eta, ESARBE SA.ko ordezkartzaren proposamenez, Kontseiluak erabaki du **Udal Ondarerako Lurzorua Erresebatzeko Proiektuaren** eremu barruan gauzatzen joango diren lurren salerosketa eragiketen zenbatekoaren EHUNEKO BIA (%2) ordaintzea, ordainsari gehigarri modura. Ordainsari hauek ez dute zerikusirik izango eremu horretan aurrerantzean gauzatuko diren hirigintza sustapena, hirigintza, eraiketa eta salmentari dagozkienekin, hauek, indarrean dagoen kontratuan iadanik ezarritakoak izango direlarik (hau da, hirigintza kostuen gaineko %6 eta eraiketako kostu zuzenen gaineko %9).

Akordio hau legezko egiteko ahalmena eman zaio lehendakariari.

4.2.- Udal zerbitzuetarako pabilioi berriko obren adjudikazioa 21.HGAren B-2 lurzatian.

Gerentziak ondorenean aipatzen diren obren adjudikazioa proposatu du:

- a) “obra zibilarena” eta gremio orokorretakoak, hau da, proiektuaren aurrekontu guztia, 3.atalburukoa izan ezik eta honetarako, Donostia SA Eraikuntzak (19.670.116 pezeta), Guillermo Ibargoiien SAK (17.485.208 pezeta) eta OZIO Eraikuntzak (16.546.571 pezeta) aurkeztutako eskaintzen konparaziozko lauki bat entregatzen duelarik.

Kontseiluak erabaki du OZIO enpresaren eskaintza onartzea, merkeena delako.

- b) ... 3.atalburuari dagozkionak (metalezko egitura, solairuartea, estalkia eta fatxadak...).

Añuri SA. eta Estructuras Marcos SA. enpresek ezetza eman diote lehiaketan parte hartzeari.

Amaiur SA enpresak egindako eskaintza: 7.700.300 + 150.000 pezeta segurtasun gaiengatik, guztira 7.850.300 pezeta (pintura barneratu gabe).

Caldenor SM: 6.800.614 + 273.988 pezeta = 7.074.602 pezeta, egituraren pintura barneratuta.

Eskaintzetako desbideraketak zuzenduta konparagarriak egiteko (pintura barneratuta ala ez eta fatxaden itxituren diferentzia, konparagarriak egiten dira 7.975.300 pezeta eta 7.179.164 pezeta, hurrenez hurren).

Kontseiluak erabaki du Caldenor SM. Enpresaren eskaintza onartzea, osatuena eta merkeena izateagatik.

4.3.- UROLA KOSTA MANKOMUNITATEKO eskaera B-2 lurzatiko Ipar erdialdean instalazio pedagogikoak jartzeko (21.HGA).

Lehendakari jaunak gai honi buruzko informazioa eman du, aldi berean jakinaraziz, Mankomunitateak 21.HGAko Ipar erdialdean, B-2 lurzatian, hala badagokio, prestatuko diren lokal berrietan jarraitu nahi duen jarduera pedagogiko eta soziala.

Kontseiluak oso positiboki baloratu du gaia, eta lurzati honen titulartasuna Udalarena denez gero (eta lurjabeek egindako lagapenetik etorritakoa, zuzenki irabazteko asmorik ez duten helburuetarako), erabaki du, “emakida administratibo” bat legezatzeko proposamena egitea Plenoari eta Mankomunitateari jakinaraztea, eskaera formala egin beharko diola Udalari.

4.4.- Ideien lehiaketa eta Otolara Plana eta 3. Sektorearen artean, hiri-hedapenerako eremuan pilotalekuaren proiektua egiteko oinarriak.

Kontseiluak komenigarritzat jo zuen aipaturikoa prestatzea, izaera enblematikoa eduki behar duen eta pilotaleku hutsa izatera mugatu gabe, erabilera anitza izango duen proiektu honen sustapenerako.

Eta beste aztergairik ez zegoenez, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera amaitutzat eman zen eta nik, idazkari honek, sinatu egiten dut lehendakariak ontzat eman ondoren.

O.E.
LEHENDAKARIA